

Nazioarteko erakundeak eta zu

Nazioarteko erakunde ugari dago giza eskubideak babesteko, gatazkak ekiditeko eta gizarte bidezkoago, oparoago eta demokratikoagoak eratzeko.

Umeen Eskubideen Batzordeak Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena betetzen dela bermatzen du. Batzordeak zure herrialdearen gainean egin dituen gomendioak kontsulta ditzakezu. <http://www2.ohchr.org/spanish/bodies/crc/index.htm>

Umeek ere aurkez ditzakete kasuak Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren aurrean. Adibidez, Auzitegiak herrialde bat erruduntzat jo du umeak kartzelan, eskolan edo etxean gorputz-zigorretik ez babesteagatik. Beste herrialde bat ere erruduntzat jo zuen bakarrik bidaiatzen ari zen neskatxa batez arduratu ez zelako.



Las organizaciones internacionales y tú

Existen muchas organizaciones internacionales creadas para proteger los derechos humanos, prevenir los conflictos y construir sociedades más justas, prósperas y democráticas.

El Comité de los Derechos del Niño garantiza el respeto de la Convención de las Naciones Unidas sobre los Derechos del Niño. Puedes consultar las recomendaciones del Comité referentes a tu país. <http://www2.ohchr.org/spanish/bodies/crc/index.htm>

Los niños también pueden presentar casos ante el Tribunal Europeo de Derechos Humanos. Por ejemplo, el Tribunal ha declarado culpable a un país por no proteger a los niños contra el castigo corporal en prisión, en la escuela o en el hogar. También se declaró culpable a otro país por no haberse ocupado de una niña que viajaba sola.

Europako Kontseilua

Europako Kontseilua 1949an sortu zen nazioarteko erakundea da eta, gaur egun, 47 Estatu kide ditu. Erakunde honen helburua giza eskubideak, demokrazia eta zuzenbide Estatua sustatzea da. Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean eta pertsonak babesteari buruzko beste hitzarmen eta gomendio batzuetan oinarritutako printzipio demokratiko komunak ezartzen ditu eta Europan bizi diren 150 milioi umeak barne hartzen ditu.

"Europa umeentzat eta umeekin eraikitzea" programaren helburua umeen eskubideak sustatzea eta indarkeriaren kontra babestea da: etxeko eta eskolako indarkeria, giza eskubideen gaineko hezkuntza, umeak eta Internet, justizia eta umeak. Informazio gehiago nahi baduzu, gure web gunea kontsulta dezakezu (www.coe.int/children) eta linea "A Wild Web Woods" izeneko gure joko ezagut dezakezu (<http://www.wildwebwoods.org/>).

Europako Kontseilua
Consejo de Europa
F-67075 Estrasburgo Cedex
children@coe.int
www.coe.int/children

El Consejo de Europa

El Consejo de Europa es una organización internacional fundada en 1949 y en la actualidad cuenta con 47 Estados miembros. Su misión es promover los derechos humanos, la democracia y el Estado de derecho. Establece principios democráticos comunes basados en el Convenio Europeo de Derechos Humanos y en otros convenios y recomendaciones sobre la protección de las personas, que incluye a los 150 millones de niños que viven en Europa.

El programa "Construir una Europa para y con los niños" tiene como objetivo la promoción de los derechos de los niños y la protección contra todo tipo de violencia: la violencia en el hogar y la escuela, la educación sobre los derechos humanos, los niños e Internet, o la justicia y la infancia. Puedes consultar nuestra página Web para obtener más información, (www.coe.int/children) y nuestro juego en línea "A través del Wild Web Woods" (<http://www.wildwebwoods.org/>).

EUROPA UMEENTZAT ETA UMEEKIN ERAKITZEA
CONSTRUIR UNA EUROPA PARA Y CON LOS NIÑOS



www.ararteko.net
ararteko@ararteko.net
01005 Vitoria-Gasteiz
Prado 9 . 945 135 118
20004 Donostia / San Sebastián
Avda. de la Libertad 26-4º . 943 420 888
48001 Bilbao
San Vicente 8 (Albia) – 11º . 944 234 409

Arartekoa

Arartekoa (Herriaren Defendatzailea) Eusko Legebiltzarren 3/1985 Legearen bitartez sortu zen. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen aurrean pertsonen eskubideak babesteko goi mandataria da.

Arartekoak lehentasunezko arreta eskaintzen die Haurrei eta Nerabeei, izan ere, biztanle talde horrek ia-ia ez du hitzik, baina gure autonomia erkidegoan 300.000 pertsonak baino gehiagok osatzen dute. Pertsona horiek berariazko eskubideak dituzte: hain zuzen ere, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean (NBEK onartua) eta Haurrek eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legean (Eusko Legebiltzarrak onartua) ezarritakoak.

Horregatik, 18 urtetik beherako pertsonen dagokienez, Arartekoaren jardueraren bitartez bat beraien eskubideak ezagutaraztea da, eta Haurren nahiz Nerabeen artean giza eskubide guztien aldeko kultura zabaltzea.

Ararteko

El Ararteko (Defensoría del Pueblo) se crea con la Ley 3/1985 del Parlamento Vasco. Es el alto comisionado para la defensa de los derechos de las personas ante las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Ararteko dedica una atención prioritaria a la Infancia y a la Adolescencia, un sector de la población que apenas tiene voz, pero que está formado en nuestra Comunidad por más de 300.000 personas. Personas con derechos específicos establecidos en la Convención de los Derechos de los Niños, aprobada por la ONU, y en la Ley de Atención y Protección a la Infancia y Adolescencia, aprobada por el Parlamento Vasco.

Por ello, una de las líneas de actuación del Ararteko en relación con las personas menores de 18 años consiste en divulgar sus derechos, y también en extender entre la Infancia y la Adolescencia una cultura de respeto a todos los derechos humanos.



Nik eskubidea dut,
zuk eskubidea duzu,
hark eskubidea du...

Pertsona guztiak dituzte eskubideak, baina 18 urte baino gutxiagoko umeek beste eskubide berezi batzuk ere badituzte. Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen 1989ko Hitzarmenean agertzen da eskubide horien zerrenda, baita gobernuak zuri eskubide horiek erabiltzen laguntzeko hartu behar dituzten neurriak ere.

Yo tengo derecho,
tú tienes derecho,
él/ella tiene derecho...

Todas las personas tienen derechos. Como niño o niña menor de 18 años, tienes además otros derechos especiales. La Convención de las Naciones Unidas sobre los Derechos del Niño de 1989 contiene una lista de esos derechos, así como las medidas que los gobiernos deben adoptar para ayudarte a ejercerlos.



Zure biziraupena, zure babesa eta zure garapena

- Zurekin lotutako erabaki guztietan zure interesak babestuak izateko eskubidea duzu, baita zure jatorriaren, zure iritzien, zure sinesmenen edo zure sexuaren ondorioz diskriminatua ez izateko eskubidea ere.
- Bizitzeko eskubidea duzu, baita garapen fisiko, mental, espiritual, moral eta sozial orekatu eta egokia izateko eskubidea ere.
- Zure oinarritzko beharrak (elikatzea, janzea, etxebizitza eta osasuna) aseak izateko eskubidea duzu.
- Edozein motatako esplotazio, gehiegikeria eta indarkeria fisiko nahiz psikologikoaren kontrako babesa izateko eskubidea duzu, baita familian edo umeen harrera-zentroetan gertatzen badira ere.
- Kalitateko hezkuntza jasotzeko eskubidea duzu.
- Askotariko informazio objektiboa jasotzeko eskubidea duzu.
- Ezintasun fisiko edo mentalen bat baldin baduzu, bizitza duina izateko eskubidea duzu, gizarteratu, zure izaera garatu eta ahal besteko autonomiaz gozatu ahal izateko.
- Atsedean hartzeko, aisialdirako, jolasteko eta ongi pasatzeko jardueretan nahiz jarduera artistiko eta kulturaletan aritzeko eskubidea duzu.


Tu supervivencia, tu protección y tu desarrollo

- *Tienes derecho a la protección de tus intereses en todas las decisiones que te conciernen y a no ser objeto de discriminación, por ejemplo, debido a tu origen, tus opiniones, tus creencias o tu sexo.*
- *Tienes derecho a la vida y a un desarrollo físico, mental, espiritual, moral y social equilibrado y sano.*
- *Tienes derecho a que se atiendan tus necesidades básicas, (alimentación, vestimenta, vivienda y salud).*
- *Tienes derecho a la protección contra todas las formas de explotación, abuso y violencia física y psicológica, incluso contra las que ocurren en la familia y en los establecimientos de acogida de niños.*
- *Tienes derecho a una educación de calidad.*
- *Tienes derecho a recibir información variada y objetiva.*
- *Si tienes una discapacidad física o mental, tienes derecho a vivir una vida digna, para que puedas integrarte en la sociedad, desarrollar tu personalidad y disfrutar de la máxima autonomía.*
- *Tienes derecho al descanso, al ocio, al juego y a las actividades recreativas, artísticas y culturales.*



Zure nortasuna, zure bizitza pribatua eta zure familia

- Izen bat eta nazionalitate bat izateko eskubidea duzu, baita zure nortasuna babesteko eskubidea ere. Gutxiengo etniko, erlijioso edo linguistiko bateko kide bazara, ezin dizute galarazi zure bizitza kulturala izatea, zure erlijioan jardutea edo zure taldearen hizkuntzan mintzatzea.
- Zure bizitza pribatua babesteko eskubidea duzu: zure etxea, zure posta, zure ohorea eta zure izen ona legez babestuta daude.
- Zure guraso biek zure hezkuntza eta garapena ziurtatzeko ardura dute. Zure eskubideak gauzatzen laguntzeko eskubidea eta betebeharra dute.
- Zure gurasok ezagutzeko eta haiengandik heziketa jasotzeko eskubidea duzu, zuretzat kaltegarria ez bada behintzat.
- Zure gurasok non dauden jakiteko eta haiekin egotearren beste hernalde batera sartzeko eskubidea duzu. Zure gurasok ere eskubide bera dute zurekiko.
- Banantze kasuan, zure gurasoekiko harremanekin zerikusia duten erabaki guztiei buruz kontsultatua izateko eskubidea duzu. Zure gurasoengandik edo horietako batengandik banantzen bazaituzte, haiek sarritan ikusteko eskubidea duzu, zuretzat kaltegarria ez bada behintzat.
- Adopzioa zure onerako baldin bada soilik baimendu daiteke.



Zure askatasunak

- Iritzitza askatasuna: gai izan bezain laster, zuri dagozkizun gai guztiei buruzko iritzia emateko eskubidea duzu. Zure iritzia kontuan hartu behar da.
- Adierazpen askatasuna: askatasunez adierazteko eta informazioa bilatu, jaso eta zabaltzeko eskubidea duzu.
- Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna.
- Elkartzeko askatasuna: beste pertsona batzuekin elkartzeko eta bileretan parte hartzeko eskubidea duzu.

Askatasun horiek zenbait muga dituzte: besteen eskubideak eta askatasunak errespetatu behar dituzu eta ezin zara gizartearentzako edo zeure buruarentzako mehatxu bat izan.

Tu libertades

- *Libertad de opinión: en cuanto seas capaz de ello, tienes derecho a dar tu opinión sobre todo lo que te concierne. Tu opinión debe tomarse en consideración.*
- *Libertad de expresión: tienes derecho a expresarte libremente y a buscar, recibir y difundir información.*
- *Libertad de pensamiento, conciencia y religión.*
- *Libertad de asociación: tienes derecho a asociarte con otras personas y a tomar parte en reuniones.*

Existen límites a estas libertades: debes respetar los derechos y libertades de los demás, y no debes constituir una amenaza para la sociedad o para ti mismo.

Tu identidad, tu vida privada y tu familia

- *Tienes derecho a un nombre, a una nacionalidad y a la protección de tu identidad. Si perteneces a una minoría étnica, religiosa o lingüística, no te pueden privar de tu derecho a desarrollar tu propia vida cultural, a practicar tu religión o a utilizar la lengua de tu grupo.*
- *Tienes derecho a la protección de tu vida privada: tu hogar, tu correspondencia, tu honor y tu reputación están protegidos por ley.*
- *Tus padres tienen la responsabilidad conjunta de asegurar tu educación y tu desarrollo. Tienen el derecho y la obligación de guiarte en el ejercicio de tus derechos.*
- *Tienes derecho a conocer a tus padres y a ser educado por ellos, a no ser que sea contrario a tu interés.*
- *Tienes derecho a saber dónde están tus padres y a entrar en otro país para estar con ellos. Tus padres tienen el mismo derecho con respecto a ti.*
- *En caso de separación, tienes derecho a ser consultado sobre todas las decisiones que conciernen las relaciones con tus padres. Si te separan de tus padres, o de uno de ellos, tienes derecho a verlos a menudo, a no ser que sea contrario a tu interés.*
- *La adopción sólo puede autorizarse si es en tu interés.*

Estatua eta zu

- Estatuek beharrezkoa den guztia egin behar du zuk zure askatasun eta eskubideak erabili ahal izateko. Indarkeriaren biktima izan bazara, Estatuak lagundu egin behar dizu eta ohiko bizitzara itzultzea erraztu behar dizu. Zure gurasoei edo zutaz arduratzen diren pertsoneri laguntzeko erakunde eta zerbitzuak sortu behar ditu. Zure familiarekin ezin bizi bazara, Estatuak babestu behar zaitu eta lagundu behar dizu. Zure iragana eta kultura kontuan hartuz, konponbide bat aurkitu behar du, eta zure egoera aldira aztertua izateko eskubidea izango duzu.
- Estatuak benetako justizia –zure eskubide eta beharretara egokitutakoa– eskuratzeko aukera ziurtatu behar dizu.
- Ezin zaituzte torturatu eta ezin dizute zigor krudel edo umiliagarririk ezarri. Ezin zaituzte hilarazi, ezta betirako kartzelaratu ere.
- Ezin zaituzte legez kontra atxilotu. Atxilotetak konponbide posibleen artean azkena izan behar du. Atxiloteta-aldiak ahal bezain laburra izan behar du eta zure beharrak eta adina kontuan hartu behar dira. Atxilotuta zauden bitartean, atxilotu helduengandik banandu behar zaituzte eta zure familiarekin harremanetan egoteko eskubidea izango duzu, aparteko kasuetan izan ezik eta zure onerako.
- Gerra garaian Estatuak babestu eta zaindu egin behar zaitu. 15 urte baino gutxiago baldin badituzu, ezingo zaituzte armadan sartu.


El Estado y tú

- *El Estado debe hacer todo lo necesario para que puedas ejercer todos tus derechos y libertades. Si has sido víctima de violencia, el Estado debe ayudarte y facilitar tu regreso a una vida normal. Debe crear instituciones y servicios para prestar ayuda a tus padres o a las personas que se ocupan de ti. Si no puedes permanecer con tu familia, el Estado debe protegerte y ayudarte. Debe encontrar una solución teniendo en cuenta tu pasado y tu cultura, y tendrás derecho a que tu situación se examine periódicamente.*
- *El Estado debe garantizarte el acceso a una justicia efectiva, adaptada a tus derechos y necesidades.*
- *No puedes ser sometido a torturas, ni a castigos crueles o degradantes. No puedes ser ejecutado ni encarcelado de por vida.*
- *No puedes ser arrestado ilegalmente. La detención debe ser la última solución posible. Debe ser lo más corta posible y tener en cuenta tus necesidades y tu edad. Durante tu detención, deben separarte de los detenidos adultos y tendrás derecho a estar en contacto con tu familia (salvo en circunstancias excepcionales y en tu propio interés).*
- *En tiempos de guerra, el Estado debe protegerte y cuidarte. Si tienes menos de 15 años, no se te podrá alistar en las fuerzas armadas.*

Eta zure eskubideak betetzen ez badira?

Bidezko arrazoiak direla eta, eskubide batzuk erabiltzeko aukera muga daiteke, baina eskubide batzuk ezin ditu inork mugatu, ezta gurasoek edo irakasleek ere, adibidez, bizitzeko eskubidea, hezkuntza eskubidea, osasun eskubidea eta indarkeriatik edo esplotaziotik babestua izateko eskubidea. Norbaitek zure eskubideak urratu dituela uste baduzu, zera egin dezakezu:

- konfiantzako pertsonekin hitz egin;
- indarkeriaren biktima diren umei laguntzeko erakundeen telefonoetara deitu, aholkuak eman diezazkizukeen norbaitekin hitz egiteko;
- poliziarengana jo, salaketa jarri eta Estatuaren babesa eskatu;
- umeen defendatzaile batekin edo umeen eskubideak babesten dituzten elkarteekin harremanetan jarri;
- kasu jakin batzuetan, zure egoera Giza Eskubideen Europako Auzitegiari azal diezazkizuke.



¿Y si no se respetan tus derechos?

El ejercicio de ciertos derechos puede verse limitado por razones válidas, pero existen derechos, como el derecho a la vida, a la educación, a la salud, y a la protección contra la violencia o la explotación, que no se pueden limitar, ni siquiera por los padres o profesores. Si piensas que se han vulnerado tus derechos, puedes:

- *hablar con personas en las que confíes;*
- *llamar a los números de teléfono de organismos de ayuda a niños víctimas de violencia, para hablar con una persona que pueda aconsejarte;*
- *acudir a la policía, poner una denuncia y pedir la protección del Estado;*
- *ponerte en contacto con un defensor de los niños o asociaciones que defienden los derechos de los niños; • en determinados casos, puedes incluso presentar tu caso ante el Tribunal Europeo de Derechos Humanos.*